

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 221/2009 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko martxoaren 11koa, hondakinei buruzko estatistikak arautzen dituen 2150/2002 (EE) Erregelamendua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazte-eskumenei dagokienez

Ondorengo itzulpena Eusko Jurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*REGLAMENTO (CE) N° 221/2009 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2009, por el que se modifica el Reglamento (CE) no 2150/2002, relativo a las estadísticas sobre residuos, en lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 87 de 31/03/2009)

221/2009 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 87 2009/03/31koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

221/2009 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena

2009ko martxoaren 11koa,

hondakinei buruzko estatistikak arautzen dituen 2150/2002 (EE) Erregelamendua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazte-eskumenei dagokienez

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Trataturia eta, bereziki, haren 285. artikuluko 1. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin ondoren,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote [1],

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2150/2002/EE Erregelamendua [2] xedatzen du Kontseiluak 1999ko ekainaren 28an onetsitako 1999/468/EE Erabakiaren arabera hartu behar direla neurri jakin batzuk; erabaki horretan Batzordeari esleitutako betearazte-eskumenak erabiltzeko prozedurak ezartzen dira [3].

(2) 1999/468/EE Erabakia Kontseiluaren 2006/512/EE Erabakiak [4] aldatu zuen, azken horrek kontrol-dun arautze-prozedura ezarri baitzuen, Tratatuko 251. artikuluan araututako prozeduraren arabera zertutako oinarritzko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri orokorrak hartzeko, are elementu horietako batzuk kenduta ere, edo egintza funtsezkoak ez diren elementu berriekin osatuta.

(3) Tratatuko 251. artikuluan araututako prozeduraren arabera onartu eta indarrean dauden egintzei kontrol-dun arautze-prozedura aplikatu ahal izateko Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006/512/EE Erabakiaz eginiko Adierazpenaren arabera [5], egintzok prozedura aplikagarriei jarraiki egokitu behar dira.

(4) Komeni da, bereziki, eskumenak ematea Batzordeari, kalitatea eta kalitate-txostenen edukia ebaluatzeko irizpide egokiak zehaztu eta azterketa pilotuen emaitzak aplikatu ditzan, bai eta eranskinen edukia egoki dezan ere. Neurri horiek orokorrak eta 2150/2002/EE Erregelamenduan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osa daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozedura betetz hartu behar dira.

(5) Horrenbestez, bidezko da 2150/2002/EE Erregelamendua aldatzea.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU EMAN DUTE:

1. artikulua

2150/2002/EE Erregelamendua honela aldatuko da:

1) 1. artikuluan, testu hau jarriko da 5. paragrafoaren lekuan:

"5. Batzordeak baliokidetasun-taula bat ezarriko du, Erregelamendu honetako III. eranskineko nomenklatura estatistikoaren eta Batzordearen 2000/532/EE Erabakiak sortutako hondakin-zerrendaren arteko baliokidetzarena, alegia [*]. Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri hau, Erregelamendu honetako 7. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betetz hartu behar da.

221/2009 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 87 2009/03/31koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2) 3. artikuluan, ondoko testu hau jarriko da 1. paragrafoaren lekuan:

"1. Estatu kideek, bigarren lerrokadaren arabera erabakitako kalitate- eta zehaztasun-baldintzak betez, beharrezko datuak lortuko dituzte I. eta II. eranskinetan zerrendatutako ezaugarriak zehazteko, honako hauen bidez:

- inkestak,

- administrazio-iturriak eta beste iturri batzuk; adibidez, hondakinen kudeaketari buruzko erkidego-legedian informazioa dela eta aurreikusitako betebeharrak,

- estatistika-estimazioa egiteko prozedurak, hondakinekin zerikusia duten balioespenak edo laginketak oinarritzat hartuta, edo

- bitarteko horiek nahi bezala nahastuta.

Batzordeak kalitate- eta zehaztasun-baldintzak erabakiko ditu. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriok (osatu ere egin dezakete hura) 7. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

Erantzunari lotutako karga gutxitzeko, agintari nazionalak eta Batzordeak, betiere estatu kide bakoitzak eta Batzordeak bakoitzaren eskumen-esparruan erabakitako mugen eta baldintzen barruan, sarbidea izango dute administrazio-datuaren iturrietara."

12) 4. artikuluan, 3. paragrafoan, ondoko testu hau jarriko da bigarren lerrokadaren lekuan:

"Batzordeak azterketa pilotuak egiteko kostuen %100 ere finantzatuko du. Azterketa horien ondorioetan oinarrituta, Batzordeak beharrezko betearazte-neurriak hartuko ditu. Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriok Erregelamendu honetako 7. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

4) 5. artikuluan, ondoko testu hau jarriko da 4. paragrafoaren lekuan:

"4. Azterketa pilotuen ondorioetan oinarrituta, Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari jakinaraziko die zer aukera dauden hondakinen inportazio eta esportazioari buruzko azterketa horien xede izandako jardueren eta ezaugarrien gaineko estatistikak biltzeko. Batzordeak beharrezko aplikazio-neurriak hartuko ditu. Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriok 7. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira."

5) 6. artikulua ordez ondoko testu hau jarriko da:

"6. artikulua

Betearazte-neurriak

1. Erregelamendu hau betetzeko beharrezko neurriak 7. artikuluko 2. paragrafoan jasotako arautze-prozeduraren arabera onetsiko dira.

Neurri horien xedeak, bereziki, hauek izango dira:

a) emaitzak lortzea 3. artikuluko 2., 3. eta 4. paragrafoen arabera, estatu kide baten egitura ekonomikoak eta baldintza teknikoak kontuan hartuta. Neurri horiek bide eman ahal izango diote estatu kide bati zerrendako puntu jakin batzuk ez jakinarazteko, betiere frogatzen bada txikia dela horrek estatistiken kalitatean izan dezakeen eragina. Salbuespenak onartzen diren kasu guztietan, hondakinen kopuru osoa jakinarazi behar da I. eranskineko 2. ataleko 1. puntuko eta 8. ataleko 1. puntuko zerrendako zenbaki bakoitzeko;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

b) estatu kideek, Erregelamendu hau indarrean jarri eta bi urteko epean, emaitzak jakinarazteko formatu egokiena zehaztea.

2. Hala ere, Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko eta, bereziki, ondoren aipatzen diren helburuak lortzeko neurriak 7. artikuluko 3. paragrafoan jasotako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartuko dira:

a) bilakaera ekonomiko eta teknikora egokitzea, datuen bilketa eta tratamendu estatistikoari eta emaitzen tratamendu eta transmisioari dagokienez;

b) I., II. eta III. eranskinetan jasotzen diren espezifikazioak egokitzea;

c) kalitatea ebaluatzeko irizpide egokiak zehaztea, bai eta I. eta II. eranskinetako 7. atalean adierazitako kalitate-txostenen edukia ere;

d) azterketa pilotuetan lortutako emaitzen aplikazioa, 4. artikuluko 3. paragrafoan eta 5. artikuluko 1. paragrafoan arautu bezala.”.

6) 7. artikulua ordez ondoko testu hau jarriko da:

”7. artikulua

Komite-prozedura

1. Batzordeak estatistika-programarako Komitearen laguntza izango du. Komite hori Kontseiluaren 89/382/EEE, Euratom Erabakiko 1. artikulua ezarritakoa betez sortu da [**].

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. paragrafoan jasotako epea hiru hilabetekoa izango da.

3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. *bis* artikuluko 1. tik 4. era bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

4. Batzordeak estatistika-programarako Komiteari zer neurri-proiektu aurkeztu nahi dion jakinaraziko dio 2006/12/EE Zuzentarauaren bidez sortutako Komiteari (zuzentarau hori Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena da, 2006ko apirilaren 5ekoa, hondakinei buruzkoa) [***].

7) 8. artikuluan, ondoko testu hau jarriko da 3. paragrafoaren lekuan:

”3. Erregelamendu hau indarrean jarri eta beranduenez ere bi urteko epean, Batzordeak txosten bat aurkeztuko dio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari 4. artikuluko 3. paragrafoan eta 5. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren azterketa pilotuetan aurreratutakoari buruz. Hala egokituz gero, azterketa pilotu horietan aldaketak egitea proposatuko du, eta aldaketa horiek 7. artikuluko 3. paragrafoan jasotako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera egingo dira.”.

8) I. eranskinean aldaketa hau egingo da:

a) 2. atalean, 2. puntuaren lekuan ondoko testu hau jarriko da:

”2. 94/62/EE Zuzentarauak informatzeko betebeharrak araututakoaren arabera, Batzordeak azterketa pilotuen programa bat prestatuko du, estatu kideek egin beharrekoa, eta borondatezkoa, bilgarrien hondakinei buruzko sarrerak 1. puntuan zehaztutako zerrendan sartzearen egokitasuna ebaluatzeko (CER-Stat Rev. 3).

221/2009 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 87 2009/03/31koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Batzordeak azterketa pilotuak egiteko gastuen %100 ere finantzatuko du. Azterketa horien ondorioetan oinarrituta, Batzordeak beharrezko betearazte-neurriak hartuko ditu. Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriok, 7. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.";

b) 7. atalean, 1. puntuaren lekuan ondoko testu hau jarriko da:

"1. Zortzigarren atalean aipatutako puntuetako bakoitzean (jarduerak eta familiak), estatu kideek adieraziko dute zer ehunekotan diren bildutako estatistikak kasuan kasuko zenbakiko hondakin guztien adierazgarri. Batzordeak eskatu beharreko gutxieneko estaldura erabakiko du. Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriok 7. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira."

9) II. eranskinean aldaketa hau egingo da:

a) 7. atalean, 1. puntuaren lekuan honako testu hau jarriko da:

"1. Hirugarren atalean adierazitako ezaugarrietarako eta 8. ataleko 2. puntuan adierazitako eragiketa-motei dagozkien zenbakietako bakoitzerako, estatu kideek adieraziko dute zer ehunekotan diren bildutako estatistikak kasuan kasuko zenbakiko hondakin guztien adierazgarri. Batzordeak eskatu beharreko gutxieneko estaldura erabakiko du. Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriok 7. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.";

b) 8. atalean, 3. puntuaren lekuan honako testu hau jarriko da:

"3. Batzordeak azterketa pilotuen programa bat prestatuko du, estatu kideek egin beharrekoa, eta borondatezkoa. Azterketa pilotu hauen xedea izango da ebaluatzea ea egokia eta bideragarria ote den datuak lortzea 2006/12/EE Zuzentarauko II A eta II B eranskinetan zehaztu bezala egindako prestaketa-eragiketen bidez egokitutako hondakinen kantitateari buruz. Batzordeak azterketa pilotuak egiteko gastuen %100 ere finantzatuko du. Azterketa horien ondorioetan oinarrituta, Batzordeak beharrezko betearazte-neurriak hartuko ditu. Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriok 7. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira."

2. artikulua

Erregelamendu hau indarrean sartuko da Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeiei egunera.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak dira, eta estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak izango dira.

Estrasburgon emana, 2009ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean,

Lehendakaria

H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean,

Lehendakaria

A. VONDRA

[1] Europako Parlamentuaren irizpena, 2008ko irailaren 23koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko otsailaren 26koa.

221/2009 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 87 2009/03/31koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

[2] L 332 EO, 2002.12.09koa, 1. or.

[3] L 184 EO, 1999.07.17koa, 23. or.

[4] L 200 EO, 2006.07.22koa, 11. or.

[5] C 255 EO, 2006.10.21ekoa, 1. or.

[*] L 226 EO, 2000.09.06koa, 3. or."

[**] L 181 EO, 1989.06.28koa, 47. or.

[***] L 114 EO, 2006.04.27koa, 9. or."